

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Natura Ondarearen Zerbitzua, biodibertsitatea kontserbatzeko bere zereginaren barruan, honako hauetaz arduratzen da: intereseko habitatak, basa fauna eta flora espezieak, batez ere mehatxatuta daudenak, eta babespeko naturaguneen kontserbazioa eta kudeaketa (parke naturalak, babespeko biotopoak, aparteko zuhaitzak, kontserbazio bereziko eremuak (KBE), hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) eta nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek bere gain hartutako eskumenetatik eratorritako eginkizun gisa.

Zerbitzuaren lehentasunezko lan ildoetako bat da Natur habitatak eta basa flora eta fauna kontserbatzeko 92/43/EEE Zuzentaraua eta Hegazti basatiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE Zuzentaraua aplikatu eta haien jarraipena egitea, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko 9/2021 Legea eta estatuko eta foru esparruko gainerako araudiak ere.

Hala, hori delarik esparrua, Arabako Foru Aldundiaren egitekoa da espezie mehatxatu, zaugarri edo galzorian daudenak zaintzeko jarduera eta kudeatze planak abian jartzea eta horien jarraipena egitea, eta kasu egitea, orobat, kalte fisikoren bat pairatu duten animaliak osatu eta berriz ere naturan sartzeko, Martiodako Suspertegiaren bitartez.

Zerbitzu honek betetzen duen beste zeregin garrantzitsu bat da gure natura ondareko floraren eta faunaren aberastasuna zabaltzea, hitzaldi, biltzar, argitalpen, ibilaldi eta bisita gidatuen bitartez.

Babestutako espazio naturaletan dauden baliabideak kontserbatzea, oinarrizko prozesu ekologikoak lortzea eta habitat, espezie, geologia eta paisaiari eustea formula proposa da ingurumena lurraldean modu

I. MEMORIA

El Servicio de Patrimonio Natural procura, en su faceta de conservación de la biodiversidad, la atención a los hábitats de interés y las especies de fauna y flora silvestres, preferentemente a los amenazados, la conservación y gestión de los espacios naturales protegidos, parques naturales, biotopos protegidos, árboles singulares, Zonas Especiales de Conservación (ZEC), Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) y Humedales Ramsar de importancia internacional, como función derivada de las atribuciones asumidas por las instituciones comunes del País Vasco.

La aplicación y seguimiento de las Directivas 92/43/CEE de Conservación de los Hábitats Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres y la 2009/147/CE relativa a la Conservación de las Aves Silvestres, así como la Ley 9/2021, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi y resto de normativa de ámbito estatal, y foral es otra de las líneas preferentes de trabajo del Servicio.

En este contexto, la puesta en marcha y seguimiento de planes de actuación y gestión de especies amenazadas, vulnerables o en peligro de extinción forma parte de los cometidos que realiza la Diputación Foral de Álava, atendiendo también al restablecimiento y reintroducción en la naturaleza de los componentes de la fauna que han sufrido percance físico, a través del Centro de Recuperación de la Fauna Silvestre de Mártioda.

La divulgación de la riqueza florística y faunística de nuestro patrimonio natural es una importante labor difusora realizada por el mismo Servicio, por medio de charlas, conferencias, publicaciones, itinerarios y recorridos guiados.

La conjunción de la conservación de los recursos existentes en los espacios naturales protegidos, la consecución de los procesos ecológicos básicos y el mantenimiento de los hábitats, de las especies, la

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

integratu eta iraunkorrean erabat garatzea bermatzeko; izan ere, Arabako azaleraren % 28,2 hartzen du, lurraldearen ia herena.

Izadia eta giza lorratzak espazio babestu, KBE, HBBE eta parke natural guztietan biltzea gaur egun sakon sustraiturik dago gizartean; horrek, batetik, jendea erakarri egiten du eta natura baliabideak gero eta gehiago errespetatzeko eta haien ikusmiran goatzeko bidean jar dezake; bestetik, errentak bertaratzea eta zerbitzuen sektorea indartzea ere ekar dezake hiriguneetatik nahiko aparte dauden eta enpleguak sortzeko muga handiak dituzten lekuetara.

Programa honen helburua, horrenbestez, ekosistema, habitat, fauna eta landare espezie eta espazio naturalen dinamika eta prozesuak zaintzea da, Arabako herritarren bizi kalitatea hobetzeko ekarpena eginez balioekin gozatu eta, bidenabar, landa garapena sustatzeko.

Parke naturalei bereziki erreparatu behar zaie, horietan dauden balio natural eta historikoak tarteko, eta parke naturalen urteko programaren oinarria osatzen duten jarduketak kudeatu eta garatzeko.

Parke naturalak berariaz kudeatzean ahalegina egiten da uztartzeko, batetik, horietako bakoitzeko berariazko babes neurriak eta, bestetik, sektore jarduerak garatzea (hau da, baso, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta arrantza jarduerak), baita aisialdikoak ere, horietan bizi den landa populazioaren bizi kalitatea areagotuz, kontuan hartuz onura publikoko mendien egitura ekarpena biltzen dutela, Arabako parke naturalen lurraldearen funtsezko gunea osatzen baitute, baita horietan bildutako onibar zehatzena ere.

Oso-osorik Araban kokatuta dauden bi parke naturalen (Valderejo eta Izki) kudeaketa zuzena Arabako Foru Aldundiak egiten du, eta Gorbeia-koarena ere bai, baina azken horrena Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoarekin. Urkiolako parke

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

geología y su paisaje es la fórmula idónea para garantizar plenamente el desarrollo integrado y sostenible de nuestro medio ambiente en el territorio, puesto que suponen el 28,2 % de la superficie de Álava, casi 1/3 del territorio.

Esa impronta de naturaleza y huella humana sumadas en todos los espacios protegidos, ZEC, ZEPA y parques naturales tiene un gran calado en la sociedad actual y produce una atracción hacia ellos que debe redundar en un conocimiento y respeto creciente de los recursos naturales y en el disfrute de su contemplación, al tiempo que produce un flujo de rentas y potenciación del sector servicios en zonas relativamente alejadas y de población con posibilidades de empleo limitadas.

El objetivo del programa se centra por tanto en la preservación de los procesos y dinámicas de los ecosistemas, de los hábitats, de las especies de fauna y flora y de los espacios naturales que los albergan, contribuyendo a la mejora en la calidad de vida de la ciudadanía alavesa, para el disfrute de sus valores y promoviendo, a la par, el desarrollo rural.

Especial atención merecen los parques naturales, por los valores naturales e históricos acumulados en los mismos, y por la gestión y ejecución de actuaciones que constituyen la base del programa anual de parques naturales

La gestión específica de los parques naturales trata de compatibilizar las medidas protectoras específicas para cada uno de ellos con el desarrollo de las actividades sectoriales (forestales, agrícolas, ganaderas, cinegéticas y piscícolas), de ocio y esparcimiento, incrementando la calidad de vida de la población rural que habita en ellos, teniendo en cuenta que aglutinan la aportación estructural de los montes de utilidad pública, que constituyen el núcleo esencial del territorio de los Parques Naturales de Álava, así como de los predios particulares englobados en los mismos.

La gestión directa de los dos parques naturales enclavados íntegramente en Álava, Valderejo e Izki, se lleva desde la Diputación Foral de Álava, así como el correspondiente a Gorbeia, con la participación económica de la Diputación Foral de Bizkaia. En el

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

naturalaren kasuan, egoera kontrakoa da. Aizkorri-Arazko parke naturalaren zuzendaritza Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, lurralde horretakoa baita parkearen barruan dagoen eremuaren % 80, eta Arabak agiri egokietan itundutako proportzioan parte hartzen du.

Azkenik, bereziki aipatu behar da espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea eta desagerraraztea; izan ere, espezie horiek arriskuan dauden fauna eta flora espezieak desagertzearen eta gainbeheraren kausa dira maiz.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Ondoren, Natura Ondarearen Programa honen helburuen gauzate maila azalduko dugu, programan aurreikusitakoan argitan:

1. Espezieen biodibertsitatearen baliabideak mantendu eta babestea.

Fauna eta flora espezieen eta intereseko habitaten jarraipenari buruzko lan lerroak garatzen jarraitu da.

Mehatxatutako espezieen kudeaketa planen gaineko txostenak idatzi ziren, bai eta zenbait jarduketa gauzatu ere, espezieen eta intereseko lekuen habitatar erasaten zioten heinean.

2025. urtean, hainbat animalia espezie hartu eta zaindu dira Martiodako Susptegiko instalazioetan; sartutako animaliak 1022 izan dira. Horrez gainera, ikerketa zientifikoetan laguntzeko eta haiek zabaltzeko lanak egin dira, bai eta gaixotasun eta epidemia patogenoen kontrola ere, hala nola botulismoa eta hegazti gripea. Halaber, susptegiaren 50. urteurrena ospatu da, eta, mugarri horren inguruan, jardunaldi tekniko bat egin da, zeinak arrakasta handia izan baitzuen; hitzaldiak antolatu dira azaroko ostegunetan; berreskuratutako animaliak taldean askatu dira, eta bideo bat grabatu da.

Hainbat hezegunetan botulismoaren eta hegazti gripearen gaixotasunak goiz detektatzeko eta

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

caso del Parque Natural de Urkiola la situación es inversa. En el Parque Natural Aizkorri-Aratz la dirección del parque corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, territorio al que corresponde el 80% de la superficie comprendida en el parque, participando Álava en la proporción convenida en los documentos oportunos.

Por último, mención específica merece el control y erradicación de las especies exóticas invasoras, que en muchas ocasiones son la causa de la extinción y declive de especies de fauna y flora amenazadas.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Exponemos a continuación el grado de cumplimiento de los objetivos de este Programa de Patrimonio Natural, en función de los previstos en el mismo:

1. Mantenimiento y protección de los recursos de la biodiversidad de las especies.

Se ha continuado desarrollando las líneas de trabajo relativas al seguimiento de las especies de fauna y flora y de los hábitats de interés.

Se redactaron informes sobre planes de gestión de especies amenazadas y actuaciones en relación con su afección al hábitat de las especies y lugares de interés.

En las instalaciones del Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Martioda se han producido ingresos de especies faunísticas que han sido atendidos a lo largo de 2025, que alcanzó la cifra de 1022 ingresos. También se han efectuado labores de divulgación y apoyo a investigaciones científicas, y el control de enfermedades y epidemias patógenas como el botulismo y la gripe aviar. Asimismo, se ha conmemorado el 50^a aniversario del centro y, alrededor de este hito, se ha celebrado una jornada técnica, que gozó de gran éxito; se han organizado charlas los jueves del mes de noviembre; se han efectuado sueltas o liberaciones colectivas de animales recuperados y se grabado un video.

Se ha trabajado en la detección y la prevención temprana de enfermedades de botulismo y gripe aviar

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

prebenitzeko lan egin da.

Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko ekintzak ere izan dira. Zehazki, espezie hauek kontrolatu dira: bisoi amerikarra, liztor asiarra (692 habia kendu eta 937 erregina inguru harrapatu dira), Floridako dortoka eta landaredia (Panpa lezka, ailantoak edo zeruko zuhaitzak eta akaziak).

2. Fauna eta flora espezieen eta sistema naturalen azterlana, ezagutza eta zabaltzea.

Hainbat azterlan egiten jarraitu da mehatxatutako animalia eta landare espezieen inbentarioak egiteko eta haien kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko. Alde horretatik, aipatzekoa da harrapari komunitateen inbentarioak prestatzeko lurraldeko hainbat gunetan egindako lanen jarraipena, eta, horiez gainera, anfibioak eta haien ugalketa eremuak, Alpeetako hegaztiak eta mirotz, baso harrapari eta miru gorriaren populazioak aztertzeke lanak, eta orobat uhalde enara, sai arre eta ugatz espezieak zaindu eta kontrolatzeko ekintzak, espezie horietarako onetsitako kudeaketa planen eremuaren barruan. Azterlanak, inbentarioak eta espezieen habitaten eta populazioen egoera kontrolatzeko eta zaintzeko hainbat ekintza gauzatu dira.

Naiadeekin, intsektu polinizatzaileekin, flora mehatxatuarekin, Euskadiko germoplasma bankuarekin, eraztunketa estazioarekin eta abarrekin ere jardun dugu.

Gainera, Sailak, Bonelli arranoa eta bisoi europarra kontserbatzeko Europako LIFE proiektuen esparruan, AfterLIFE aldien baitan, hauetan jardun du: jarraipen ekintzak, haien populazioa areagotu eta mehatxuak ezabatu, eta zabalkunde lanak egin beste administrazio publiko batzuetako kideekin batera. 2025ean, egiaztatu da bisoi amerikarra erabat desagerrarazi dela Arabako ibai arro guztietan (lurraldearen % 100), eta bisoi europarra pixkanaka berreskuratzen ari dela. Hala, Salburuko hazkuntza programatik datozen ale bat askatu da, Gasteizko Udalaren laguntzarekin, eta bisoiaren hiru kume jaio dira Arabako hazkuntza zentroan.

Lan eremu horretan, azpimarratzekoak dira, halaber,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

en diferentes humedales.

Se han desarrollado asimismo acciones de control sobre especies exóticas invasoras, en concreto sobre el visón americano, avispa asiática (692 nidos retirados y unas 937 reinas capturadas), galápagos de Florida y flora (plumero de la Pampa, ailantos o árboles del cielo y acacias).

2. Estudio, conocimiento y divulgación de las especies de fauna y flora y los sistemas naturales.

Se ha continuado con diversos estudios para hacer el inventario y seguimiento del estado de conservación de las especies de fauna y flora amenazadas. A este respecto, debe desatacarse la continuidad en los trabajos para inventariar las comunidades de rapaces realizadas en diversas áreas de nuestro territorio, los estudios de las poblaciones de anfibios y sus áreas reproductivas, aguiluchos, aves alpinas, mochuelo, milano real, así como las actuaciones de seguimiento y control de las especies de avión zapador, de buitre leonado, y quebrantahuesos en el marco de los Planes de Gestión aprobados para dichas especies. Se han realizado estudios, inventarios y acciones diversas para control y seguimiento de sus hábitats y estado de sus poblaciones.

También se ha trabajado con náyades, flora amenazada, colaboración con el banco de germoplasma de Euskadi, estación de anillamiento, ...

Además, el Departamento en el marco de los dos proyectos LIFE europeos de conservación del águila de Bonelli y LIFE del visón europeo se han desarrollado en sus respectivos periodos AfterLIFE acciones de seguimiento, refuerzo poblacional, eliminación de amenazas y divulgación con los otros socios de administraciones públicas. En 2025 se sigue constatando la erradicación total del visón americano en todas las cuencas fluviales de Álava (100% del territorio) y la progresiva recuperación del visón europeo, que se ha visto ayudada por la liberación de un ejemplar procedentes del programa de cría en Salburua, con la colaboración del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y el nacimiento de tres crías de visón en el centro de cría de Álava.

También debe destacarse en esta área de trabajo las

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

otsoen populazioaren azterketa eta jarraipen jarduerak, bai eta abeltzaintzan duten eragina eta prebentzio neurrien ezarpena ere, artzain zaindariak barne. Haien artean, larreetako sastrakak kentzeko ekintzekin jarraitu da, ardi aziendaren larratzea hobetzeko Gorbeian eta Gibijon; zaintzako artzainen proiektu berritzaile bat jarri da abian, ardi taldeak maneiatzen eta otsoaren erasoetatik babesten laguntzeko. Espeziearen jarraipenarekin jarraitu da, identifikazio genetikoko tekniken, arrastoen eta fototranpeoaren bidez, eta prebentzio neurriak aplikatuz. Hala, ardi-aziendari eragindako kalteak nabarmen murriztea lortu da.

3. Gune babestuen hobeto babestea

Gatz Haraneko ingurumenaren kontserbazioan lankidetzan jardunez jarraitu da, beste ekintza batzuekin koordinatuta, hala nola gatz arkitektura eta jarduera berreskuratzea eta, bereziki, Santa Engraziako gatz iturburuko ingurunean enklabe botanikoa abian jartzea, haranean berezkoak diren flora espezie halófitoak landatuz eta haziak ereinez, hori funtsezkoa baita Añanako diapiroko biodibertsitate aberastasuna kontserbatzeko. 2025ean, LIFE GLOBAL proiektuaren ekintza espezifiko batean parte hartu da, zeinak Europako laguntzaren % 75 jaso baitu.

Natura 2000 Sareko eremuetan (KBE eta HBBE eremuak), jada onetsita dauden eremuak kudeatzeko neurriak eta gidalerroak gauzatzen jarraitzen da.

Gainera, eremu horien babesaren eta prebentzioaren arloan, haietan eragina izan dezaketen proiektuak eta jarduketak baimentzeko eta baldintzak ezartzeko txostenak eman dira.

Ingurumena lehengoratzeko beste jarduera batzuk egin dira ibai korridoreetan, Ihuda, Baia, Omecillo, Zadorra eta Ebro ibaien KBE-etako ibaiertzetan, bai eta Prado de la Paúl aintziraren eta Guardiako aintziren inguruan ere. Aintziren funtzionamendu hidraulikoa eta ibaiertzeko landaredia egokitzen eta aintzira hodia betetzen amaitu da.

Azkenik, korridore ekologiko funtzionalak egokitze eta diseinatze proiektuak lantzen ari dira, Arabako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

actuaciones de estudio y seguimiento de la población del lobo y su incidencia con la ganadería y la implantación de medidas preventivas, incluida la figura de pastores de guarda. Entre ellas, acciones de desbroce de pastizales para mejorar el pastoreo de ganado ovino en Gorbeia y Gibijo, se ha puesto en marcha un proyecto novedoso de pastores de guarda, para colaborar en el manejo de rebaños de ovino y en la protección frente a ataques de lobo. Se continúa con el seguimiento de la especie mediante técnicas de identificación genética, rastros y fototrampeo y en la aplicación de medidas preventivas, habiéndose conseguido una disminución apreciable de daños en ganado ovino.

3. Mejora y protección de espacios protegidos

Se continua la colaboración en la conservación ambiental del Valle Salado en coordinación con la recuperación de la actividad y arquitectura salinera y en especial la puesta en funcionamiento del enclave botánico en el entorno del manantial salino de Santa Engracia con las siembras de semillas y plantaciones de especies de flora halófitas propias del Valle, lo que es fundamental para la conservación de la riqueza en Biodiversidad del diapiro de Añana. En 2025 forma parte de una acción específica del proyecto LIFE GLOBAL, que cuenta con un 75 % de ayuda europea.

En el ámbito de espacios Red Natura 2000 (ZEC y ZEPA), se siguen ejecutando las directrices y las medidas de gestión en los espacios ya aprobados.

Además, en materia de protección y prevención de estos espacios, se han emitido informes de autorización y condicionado en proyectos y actuaciones que se han efectuado o pudieran afectarles.

Otras actuaciones de restauración ambiental se han llevado en corredores fluviales, en las riberas de las ZEC de los ríos Ayuda, Bayas, Omecillo, Zadorra y Ebro, así como en el entorno la laguna del Prado de la Paúl, de las Lagunas de Laguardia que se ha finalizado la adecuación de su funcionamiento hidráulico, vegetación de ribera y llenado del vaso lagunar.

Se sigue trabajando en proyectos de adecuación y diseño de corredores ecológicos funcionales que

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

KBE-en arteko biodibertsitate trukea errazteko.

Era berean, eremu horretan, Sailak lortu zuen Natura 2000 Sareko Natura Turismoaren Jasangarritasuna Aitortzeko Sistemara Salburuko gunek (2023) eta Valderejo, Gorbeia eta Izki parke naturalak (2024) atxikitzeko ziurtagiria. Ziurtagiri horiek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak kudeatzen eta babesten dituzte, eta Natura 2000 espazio horien kontserbazio helburuekin bateragarria den erabilera publikoa bermatzen dute.

Ondoren, hotel jarduera edo natura jarduerak espazio horietan egiten dituzten enpresei lagundu eta ziurtagiria eman zaie, zeinek, gainera, ingurumen dibulgazioan eta hezkuntzan laguntzen baitute.

Partaidetzako bi proiektu garatu eta gauzatu dira: egokitzapen lanak egitea Berganzo Green Uraren Ibilbidean (2023) eta Paulejako hezeguneak itxuraberritzea (Zambranako udalerrria) (2024).

4. Parke naturalak

a) Parke naturalak zaintzea eta berpiztea, haien balio handienak mantentzeko jardueren bitartez eta herritar guztiei, eta bereziki landa eremuetako populazioari, onurak ekarriko dizkieten azpiegiturez eta zerbitzuez hornituz.

Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen parke naturalak (Valderejo, Gorbeia eta Izki) beren natura baliabideak antolatzeke planek (NBAP), erabilera eta kudeaketa arautzeke planek (EKAP) eta KBE gisa kudeatzeko agiriak arautzen dituzte.

Valderejo, Gorbeia eta Izkiko parkeetako patronatuen arauzko bilerak egin dira, eta horietan onartu dira onartu beharreko jardueren memoriak eta urteko aurrekontuak.

Parkeetan hainbat jarduera planifikatu dira, bai eta hainbat azpiegitura eta instalazioen mantentzea ere, sektore, prestakuntza, aisialdi eta denbora libreko erabilerak eta zuzendaritza eta kontserbazioa

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

favorezcan el intercambio de biodiversidad entre los espacios ZEC de Álava.

Igualmente, en este ámbito el Departamento consiguió la Certificación de adhesión al Sistema de Reconocimiento de las Sostenibilidad del Turismo de Naturaleza en la Red Natura 2000, de los espacios Salburua (2023) y los parques naturales de Valderejo, Gorbeia e Izki (2024). Estos certificados son gestionados y amparados por los ministerios de Transición Ecológica y Reto Demográfico y el de Industria, Comercio y Turismo y garantizan un uso público compatible con los objetivos de conservación de dichos espacios Natura 2000.

Con posterioridad, se ha ayudado y a certificar empresas que ejercen su actividad hotelera o de actividades de naturaleza en dichos espacios, que además sirven de colaboradores en la divulgación y educación ambiental.

Se han desarrollado y ejecutado dos proyectos participativos: Acondicionamiento en la Ruta del Agua de Berganzo Green (2023) y la Restauración de los humedales de la Pauleja (T.M. Zambrana) (2024).

4. Parques Naturales

a) Protección y revitalización de los parques naturales mediante actuaciones de mantenimiento de sus valores más notables y dotación de infraestructuras y servicios en beneficio de la ciudadanía en general y del medio rural en particular.

Los parques naturales de Álava gestionados desde la Diputación Foral (Valderejo, Gorbeia e Izki) se regulan por sus respectivos Planes de Ordenación de Recursos Naturales (PORN), sus Planes Rectores de Uso y Gestión (PRUG) y los documentos de gestión como espacios ZEC.

Se han convocado las reuniones reglamentarias de los patronatos de los parques de Valderejo, Gorbeia e Izki en las que se ha procedido a la preceptiva aprobación de las memorias de actuaciones y de los presupuestos anuales.

Se han planificado diversas actividades y el mantenimiento de infraestructuras e instalaciones en los parques, como instrumentos de ordenamiento de usos sectoriales, formativos, recreativos y de ocio,

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

antolatzeko tresna gisa. Bereziki garrantzitsuak dira aisialdi eremuak mantentzeko eta hobetzeko eta Gorbeia, Aizkorri-Arazko, Valderejoko eta Sobrongo bidezidor sarearen egiteari eragiten diotenak. Muruko harrobietarako bideko zuloaren jarraipena egiten jarraitu da, parke naturalerako sarbide gisa duen garrantziagatik, eta larreetan sastrakak kentzeko lanekin jarraitu da, larratzea errazteko.

b) Parke naturalen balioen berri ematea, bizilagunek errespetatu ditzaten eta haietaz gozatu dezaten, gizartearen estamentu guztiak xede dituzten ingurumen hezkuntzako jarduerak bultzatuz.

2025ean, Arabako espazio naturalen webguneak egokitzen jarraitu da, zuzeneko jardueren osagarri diren dibulgazio birtualeko jardueren berri emanda. Horrez gain, parkeetako baliabide naturalei buruzko argibideak eman dira. Natura eta kultura dinamizazioa jardueren programak egiten jarraitu da. Lau parkeen artean programatu dira, eta naturagune babestuetatik hurbil dauden herrietako biztanleek eta bisitariek gozatzeko eskaintza jarraituak biltzen dituzte.

Jarraitu zen erabilera publikoa abeltzaintzarekin bateragarri egiteko zabalkunde kanpainarekin; informazio kartelak egin ziren, ganaduekin eta zaintza txakurrekin jokatzeko arauak eta abeltzaintza estentsiboak naturaguneen kontserbazioan duen zeregina azaltzeko.

5.- Proiektuak Europako funtsekin

2023an Arabako parke naturaletako Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren esparruan proiektu bat lortu dela. Proiektu horrek % 100eko dirulaguntza eskatzen du Europako Next Generation funtsen bidez, 2.090.000 euroko inbertsioa egiteko 2024tik 2026ra bitartean, eta hainbat jarduketaren hartzea ditu barnean, trantsizio berde eta jasangarriari, energia efizientziari, trantsizio digitalari eta lehiakortasunari dagokienez. Jarduketaren artean sartzen dira, besteak beste, aparkaleku berriak eraikitzea, mendiko aterpeak egokitzea, bizikleta ibilbideetara egokitzea, erakusketak berriro eta turismo produktuei lotutako beste batzuk. 2025ean, akzio gehienetarako agiriak,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

dirección y conservación. Adquieren especial relevancia aquellas que afectan al mantenimiento y mejora de las áreas recreativas y la ejecución de las redes de sendas de Gorbeia, Aizkorri-Aratz, Valderejo y Sobrón. Se continúa con el seguimiento del socavón del camino a las Canteras de Murua, por su importancia como accesos al parque natural y se ha continuado con labores de desbroce de pastizales para facilitar el pastoreo.

b) Divulgación de los valores de los parques naturales encaminada a su disfrute por la población y hacia su respeto, potenciando actuaciones de educación ambiental dirigida a diferentes estamentos de la sociedad.

El año 2025 se han seguido actualizando las páginas web de los espacios naturales de Álava con la divulgación de actividades y para facilitar la información sobre los recursos naturales de los parques. Se continúa con los programas de actividades de dinamización natural/cultural, programadas entre los cuatro Parques que aglutinan ofertas continuadas para el disfrute de visitantes y habitantes de los pueblos cercanos a los espacios naturales protegidos.

Se continuó con la campaña de divulgación para compatibilizar el uso público con la actividad ganadera, con carteles informativos sobre normas de comportamiento con el ganado y los perros de guarda y el papel de la ganadería extensiva en la conservación de los espacios naturales.

5.- Proyectos con Fondos Europeos

En 2023 se concedió un Proyecto del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino en los parques naturales de Álava, que implica la subvención al 100% con fondos europeos Next Generation de una inversión de 2.090.000 euros a desarrollar en los años 2024 a junio de 2026 y que incluye múltiples actuaciones en cuanto a Transición Verde y Sostenible, Eficiencia Energética, Transición Digital y Competitividad que incluye entre otros la construcción de nuevos parkings, adecuación de refugios de montaña, adaptabilidad a itinerarios ciclistas, renovación de exposiciones y otras ligadas a productos turísticos. En 2025 se han preparado

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

proiektuak eta lizitazio dokumentuak prestatu dira, bai eta Izki parke naturalerako Starlight ziurtagiria ere.

After LIFE LUTREOLA aldian, bisoi amerikarra desagerrarazteko eta bisoi europarraren jarraipenerako jardunekin jarraitu da, eta bisoi amerikarra ia desagerraraztea lortu da Arabako lurralde mugakideekin elkarlanean; orobat jarraitu dugu bisoiak hazteko programan lankidetzan. Egiatzatu da bisoi amerikarra erabat desagerrarazi dela Arabako ibai arro guztietan, eta bisoi europarra pixkanaka berreskuratzen ari dela; izan ere, Salburuko hazkuntza programako ale bat askatu da, Gasteizko Udalarekin lankidetzan.

Zerbitzuak AQUILA proiektuaren After LIFE aldian garatutako jarduketak ere egin ditu; espeziearen jarraipena eginez eta habitata egokituz populazioak hobeto elikatzeko; IBERDROLAren lan esparru batean lanean jarraitu da hegaztiak babeste aldera linea elektrikoak aldatzeari ekiteko, linea elektrikoetan gertatzen diren elektrokuzioen aurrean. 2020an, espeziearen lehenengo lurralde berria egiatzatu zen Araban, 2018an askatu ziren bi ale parekaturekin. 2025ean, Arabako Mendialdeko lurralde berrian bi eme egon dira, eta, arrautza ernalezinak jartzean, arrautzak kendu eta hamalau eguneko bi txita jarri ziren, Arboro eta Malabo izenekoak, zeinak hazi eta aurrera atera baitzuten eta orain Ebro haranean hegan egiten ari baitira. Halaber, "Izkiko ameztiko ekosistema eta berarekin zerikusia duten interes komunitarioko habitat eta espezieak kudeatzea" izeneko POSTLIFE+ PRO-Izki proiektuan jasotako ekintzak garatzen jarraitu da.

Oreka Mendian proiektuaren After LIFE aldian ere lan egiten jarraitzen da, larreak kontserbatzeko eta maneiatzeko, Mendi Zerbitzuarekin koordinatuta. Zerbitzuak lanean jarraitu du 89/15 ECOGYP proiektuaren ekintzetan Interreg Poctefa "4NEKROS" hautagaitza aurkezteko, eta LIFE URBAN KLIMA proiektuan, non aztertzen jarraitzen baita 2019ko tornadoak eragindako lursailen bilakaera. Lursail

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

pliegos, proyectos y documentos de licitación para la mayoría de las acciones, así como la certificación Starlight para el parque natural de Izki.

En el periodo After LIFE LUTREOLA, se han continuado con las actuaciones de descaste de visón americano y seguimiento del visón europeo, consiguiendo la práctica erradicación del visón americano de manera coordinada con todos los territorios limítrofes de Álava, así como la colaboración en el programa de cría de visón. Se sigue constatando la erradicación total del visón americano en todas las cuencas fluviales de Álava y la progresiva recuperación del visón europeo, que se ha visto ayudada por la liberación de un ejemplar procedente del programa de cría en Salburua, con la colaboración del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

El Servicio ejecutó también actuaciones desarrolladas en el marco del periodo After LIFE del proyecto AQUILA, haciéndose seguimiento de la especie y acondicionando el hábitat para mejorar la alimentación de las poblaciones y se continúa un marco de trabajo con IBERDROLA para abordar las modificaciones de tendidos eléctricos para la protección de las aves frente a electrocuciones en líneas eléctricas. En 2020 se constató el primer nuevo territorio de la especie en Álava, con dos ejemplares emparejados que habían sido liberados en 2018. En 2025 el nuevo territorio de Montaña Alavesa sigue ocupado por dos hembras que, al poner huevos infértiles, fueron cambiados por dos pollos de unos catorce días que criaron y sacaron adelante, de nombre Arboro y Malabo, que ahora vuelan por el Valle del Ebro. También se siguen desarrollando las acciones previstas en el POSTLIFE+ PRO-Izki "Gestión ecosistémica del marjal de Izki y de los hábitats y especies de interés comunitario con los que se relaciona".

También se sigue trabajando en el After LIFE del proyecto Oreka Mendian para la conservación y manejo de pastizales en coordinación con el Servicio de Montes. Se ha seguido trabajando en acciones de los proyectos 89/15 ECOGYP para la presentación de una candidatura Interreg Poctefa "4NEKROS", y en el LIFE URBAN KLIMA, en donde se sigue estudiando la evolución de las parcelas afectadas por el tornado

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA BIODIBERTSITATEA

horiek gordeta daude basoaren bilakaera naturala aztertzeko, klima aldaketa sortzen ari den berotze globalak eragindako gertaera berri horien aurrean.

LIFE GLOBAL proiektua (Iberiar Penintsularen iparraldean kontserbazio balio handiko Natura 2000 eremuak aldaketa globalaren ikuspegitik itxuraberritzeko nazioz gaindiko estrategia) lantzen ari gara. Proiektu horrek ekintzak jasotzen ditu Natura 2000 Sareko hainbat gune babestutan: Laguardiako urmaelak, Izki, Gorbeia, Arabako hegoaldeko mendilerroak, Entzia, Zadorraren sistemako urtegiak, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirak, eta Valderejo-Sobrón-Arcena mendilerroa.

6.- Ingurumen zerbitzuen ordainketak

Natura Ondarearen Zerbitzuak ingurumen zerbitzuen ordainketak (IZO) egiteko deialdiarekin jarraitu zuen, oinarri hartuz 2011/51 Foru Dekretua. 2025ean, otso zonetako larre habitaten kontserbazio kategoria eta faunaren kontserbazio kategoria (saguzarrak eta anfibioak) eskaini ziren. Ardien 9 ustiategi estentsibori ordainketa egin zitzaion, 35.100 euroko guztizko zenbatekoan, ustiategi bakoitzaren baldintzen proportzioan banatuta; beste 6 eskatzaileri 8.000 euro ordaindu zitzaizkien anfibioak kontserbatzeagatik, eta beste 3 eskatzaileri 4.375 euro, saguzarrak kontserbatzeagatik.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y BIODIVERSIDAD

de 2019 y que se preservan para analizar la evolución natural del bosque frente a estos eventos nuevos ocasionados por el calentamiento global que está generando el cambio climático.

Se está trabajando el proyecto LIFE GLOBAL *Estrategia transnacional para la restauración de áreas Natura 2000 de alto valor de conservación en el Norte de la Península Ibérica bajo una perspectiva de cambio global*, que contiene acciones en diferentes espacios protegidos de la Red Natura 2000: Lagunas de Laguardia, Izki, Gorbeia, Sierras Meridionales de Álava, Entzia, Embalses del Sistema del Zadorra, Lago de Caicedo Yuso y Arreo, y Valderejo-Sobrón-Sierra de Arcena.

6.- Pagos por Servicios Ambientales

El Servicio de Patrimonio Natural continuó con la convocatoria de Pagos por Servicios Ambientales PSA, sobre la base del Decreto Foral 2011/51. En 2025 se ofertaron la categoría de conservación de hábitats pascícolas en zonas loberas y de conservación de fauna (murciélagos y anfibios). Se efectuó el pago a 9 explotaciones ganaderas de ovino en extensivo por un importe total de 35.100 euros a repartir en proporción a los condicionantes de cada explotación; así como a otros 6 solicitantes por conservación de anfibios con un importe de 8.000 euros y a otros 3 solicitantes por conservación de murciélagos por importe de 4.375 €.

XEDEA	EKINTZA	ADIERAZLEAK		
		Ekintzaren Adierazlea	2025 Magnitudea	2025 Egindakoa
Arabako natura ondarea babestu eta zaintzea	Babestutako animalien eta landareen populazioen egoerari buruzko azterlanak eta jarraipen azterlanak	Egindako azterlanak	5	11
	Martiodako Faunaren Susptegian animalia basatiak jasotzea, suspertzea eta askatzea	Artatutakoak	700	1022
	Natura 2000 Sarea: ingurumen obrak eta jarduketak	Egindako jarduketak	20	9

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

	Natura ondarea hobetzeko eta ondo kudeatzeko nazioarteko proiektuetan parte hartzea	Parte hartutako proiektuak	3	2
	Ingurumen heziketako kanpainak ikasleentzat	Antolatutako kanpaina eta jarduerak	4	5
Naturaguneen balioa nabarmentzea, haien balioen ezagutza, erabilera eta gozamena sustatuz	Hezkuntzako kanpainak eta jarduerak herritarrentzat	Antolatutako kanpaina eta jarduerak	25	62
	Webgune, naturaguneei buruzko informazioarekin: Parke Naturalak eta Natura 2000 Sarea	Naturaguneen kop.	25	25
	Naturaguneak adierazteko seinale homogeneoak: Parke Naturalak eta Natura 2000 Sarea	Kartel kop.	80	14
	Herritarrentzako azpiegitura hidraulikoak egokitzeko eta hobetzeko lanak	Egindako obrak	10	13
Naturagune babestuetan kokatutako komunitateen garapen iraunkorra bermatuko duen gobernantza eta kudeaketa eredia taxutzea	Lehen sektorearen inguruko azokak eta ekitaldiak antolatzea	Ekitaldi kop.	2	3
	Naturagune babestuetan garatutako erabilerak, jarduketak eta jarduerak baimentzeko edo baldintzatzeko espedienteak edo espezieei eragiten dietenak.	Izapidetutako espedienteak	350	800
	Erakundeek eta herritarrek Natura 2000 Sarearen kudeaketan parte hartzeko modua prestatzea	Hitzarmenak, erabakiak, bilerak, eta abar	3	5
	Aisialdiko jardueren eta kirol jardueren eta kalte ordainen arautegiak prestatzea	Foru agindua/dekretua	3	0
	Parke Naturalen patronatuen deialdia eta parte hartzea	Egindako patronatuak	5	5
	Espezieak edo habitatak artatzeko ingurumen zerbitzuak ordaintzea	Izapidetutako espedienteak	25	20

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD

Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

OBJETIVO	ACCIÓN	INDICADORES		
		Indicador de acción	Magnitud 2025	Realizado 2025
Proteger y conservar el patrimonio natural alavés.	Realización de estudio de estatus y/o seguimiento de poblaciones de fauna y flora protegida	Estudios realizados	5	11
	Desempeño de las actividades de recogida, recuperación y liberación de especies de fauna silvestre en el Centro de Recuperación de Fauna de Mártioda	Ejemplares atendidos	700	1022
	Realización de obras y actuaciones ambientales en los espacios Red Natura 2000	Actuaciones ejecutadas	20	9
	Participación en proyectos internacionales de mejora del patrimonio natural y su gestión	Proyectos participados	3	2
	Desarrollo de campañas de educación ambiental dirigidas a escolares	Campañas y actividades organizadas	4	5
Puesta en valor de los Espacios Naturales promoviendo el conocimiento, uso y disfrute de los valores que albergan	Desarrollo de campañas y actividades de educación dirigidas a la población	Campañas y actividades organizadas	25	62
	Página web con información de los espacios naturales: Parques Naturales y RN2000	Nº de Espacios Naturales	25	25
	Señalética homogénea en los espacios naturales: Parques Naturales y N2000	Nº carteles	80	14
	Realización de obras de adecuación y mejora de las infraestructuras destinadas al uso público	Obras realizadas	10	13
Diseñar un modelo de gobernanza y gestión que garantice el desarrollo sostenible de las comunidades asentadas en los Espacios Naturales Protegidos	Organización de ferias y eventos relacionados con el sector primario	Número de eventos	2	3
	Expedientes de autorización o condicionamiento de usos, actuaciones y actividades desarrolladas en Espacios Naturales Protegidos o afección a especies	Expedientes tramitados	350	800
	Desarrollar la fórmula para establecer la participación institucional y ciudadana en la gestión de la Red Natura 2000	Convenios, acuerdos, reuniones, etc.	3	5

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Saila: 15 EKONOMIA GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA
Programa: 172151 NATURAGUNEAK ETA
BIODIBERTSITATEA

Departamento: 15 DESARROLLO ECONÓMICO Y
SOSTENIBILIDAD
Programa: 172151 ESPACIOS NATURALES Y
BIODIVERSIDAD

	Desarrollar normativa para regular actividades recreativas y deportivas e indemnizaciones	Orden/Decreto Foral	3	0
	Convocatoria y participación de los Patronatos de los Parques Naturales	Patronatos realizados	5	5
	Pagos por Servicios Ambientales para la conservación de especies o de hábitats	Expedientes tramitados	25	20